



**ERRETERIA  
UDALA**  
Kirolak / Deportes

**Espediente zk./Nº Expediente:** 2023SDBD0006

**Gaia/Asunto:** 2023 – KIROLETAKO DEPARTAMENTUKO DIRULAGUNTZA DEIALDI ORIKORRA. 5.3 Dirulaguntza Lerroa: Erreneriako Ikastetxeak. Eskola Kiroleko Kudeaketa eta Arreta (aurrebenjamin, benjamin eta alebin kategoriak). / Línea de Subvención 5.3: Centros Educativos de Errenteria. Gestión y atención del deporte escolar (categorías: prebenjamín, benjamín, y alevín).

**Eskatzailea/Solicitante:** ERRETERIAKO UDALA  
**Kokalekua/Emplazamiento:** ERRETERIA

**NAN(IFK)/DNI(NIF):** P2007200E  
**Dekretu zk./Nº Decreto:** 2110

**JAKINARAZPENA**

Jakinarazten dizut, Zinegotzi Delegatuak 2023ko abuztuaren 23a datan, ondorengo dekretua eman duela:

**DEKRETUA**

**AURREKARIAK**

Kirolak Zinegotzi Delegatuak 2023eko martxoaren 30an emandako 759 dekretuaren bidez onartu zen “5.3 Dirulaguntza Lerroa: Erreneriako Ikastetxeak. Eskola Kiroleko Kudeaketa eta Arreta (aurrebenjamin, benjamin eta alebin kategoriak). / Línea de Subvención 5.3: Centros Educativos de Errenteria. Gestión y atención del deporte escolar (categorías: prebenjamín, benjamín, y alevín)”. dirulaguntzak emateko 2022-2023 ikas-urteroko deialdia.

Deialdi hori Dirulaguntzen Datu-Base Nacionalean (BDNS identif.: 686418) eta 2023ko apirilaren 20ko GAO n argitaratu zen. Horrela ezarri zen jendaurrean 2023ko maiatzaren 22an dirulaguntza eskaerak aurkezteko epea.

Hainbat elkartek jarduerak egiteko dirulaguntza eskatu dute.

Kiroletako teknikariak 2023ko ekainaren 5tean txostena eman du.

**NOTIFICACIÓN**

Pongo en su conocimiento que la Concejala Delegada con fecha 23 de agosto de 2023 ha dictado el siguiente decreto:

**DECRETO**

**ANTECEDENTES**

Mediante decreto número 759 de la Concejala Delegada de Deportes de fecha 30 de marzo de 2023 se aprobó la convocatoria anual para la concesión de subvenciones “5.3 Dirulaguntza Lerroa: Erreneriako Ikastetxeak. Eskola Kiroleko Kudeaketa eta Arreta (aurrebenjamin, benjamin eta alebin kategoriak). / Línea de Subvención 5.3: Centros Educativos de Errenteria. Gestión y atención del deporte escolar (categorías: prebenjamín, benjamín, y alevín)” para la temporada escolar 2022-2023.

Dicha convocatoria ha sido publicada en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (BDNS identif.: 686418) y en el BOG de fecha 20 de abril de 2023, fijándose públicamente el 22 de mayo de 2023 el plazo para presentar solicitudes de subvención.

Diversas entidades han solicitado subvención para la realización de actividades anuales.

El Técnico de Deportes ha emitido informe con fecha 5 de junio de 2023.



## ERRETERIA UDALA

Kirolak / Deportes

Balorazio Mahaiak 2023ko ekainaren 14an egin du proposamena.

Herritarrak Batzordea 2023ko uztailaren 10ean jakinaren gainean jarri zen.

Kontu-hartzaileak 2023ko uztailaren 14a datan espedientea fiskalizatu du,

### ZUZENBIDE OINARRIAK

- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra.

- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, 38/2003 Dirulaguntza Orokorrei buruzko Legearen Erregelamendua.

- Errenteriako udalean dirulaguntzak ematea arautzeko udal ordenantza (GAO 2015/08/10).

- 2022ko azaroaren 25an Alkateak emandako 2682 zenbakiko dekretuaren bidez onartu ziren Errenteriako Udalak 2023. urtean eta 2023-2024 ikasturtean zehar emango dituen dirulaguntzak arautzeko oinarri orokorrak.

2022ko abenduaren 19ko Alkatezaren 2.856 zenbakidun Dekretuaren bidez, Oinarri Orokor horietako akatsak zuzendu dira.

Horregatik guztiatik, Udal honetako Alkatezarak eskuordetu dizkidan eskumenak baliatuz, eta Udal Idazkari Orokorrek espedientean jasotako dekretu-proposamenari emandako adostasunarekin.

Honen bidez,

### EBATZI DUT

1.- Dirulaguntzak ematea jarraian aipatzen diren entitateei, 2022-2023 denboraldian Errenterian

La Mesa de Valoración ha emitido propuesta con fecha 14 de junio de 2023

La Comisión de Ciudadanía fue informada con fecha 10 de julio de 2023.

La interventora con fecha 14 de julio de 2023 ha fiscalizado el expediente.

### NORMATIVA APLICABLE

- Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

- Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, Reglamento de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.

- Ordenanza municipal reguladora de la concesión de subvenciones en el Ayuntamiento de Errenteria (BOG 10/08/2015).

- Las bases generales para la concesión de subvenciones por el Ayuntamiento de Errenteria durante el año natural 2023 y el curso 2023-2024 se aprobaron por Decreto de Alcaldía nº 2682 de fecha 25 de noviembre de 2022.

Mediante Decreto de Alcaldía nº 2.856 de fecha 19 de diciembre de 2022 se ha procedido a la corrección de errores de dichas Bases Generales.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias que me han sido conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, y con la conformidad dada por la Secretaria General municipal a la propuesta de decreto que consta en el expediente.

Por la presente,

### RESUELVO

1.- Conceder subvención a las siguientes entidades, correspondientes a la financiación de



**ERRETERIA  
UDALA**

Kirolak / Deportes

Eskola Kirola kudeatu eta artatzeko egitura espezifikoak finantzatzeko (mailak: aurrebenjaminak, benjaminak eta alebinak).

estructuras específicas para la gestión y atención al Deporte Escolar (categorías: prebenjamín, benjamín y alevín) que se vayan a realizar en Errenteria en la temporada 2022-2023.

<b>ELKARTEA / ASOCIACIÓN</b>	<b>PROGRAMAK / PROGRAMAS</b>	<b>KOPURUA / CANTIDAD</b>
Eskola Kirola - Orereta Ikastola Koop. E.	Eskola Kiroleko Kudeaketa / Gestión Deporte Escolar	47.783,56€
Eskola Kirola – “Bizaraingoak” Bizarain Ikastolako Ikasleen Gurasoen Elkarte	Eskola Kiroleko Kudeaketa / Gestión Deporte Escolar	13.440,00€
Eskola Kirola - Cristobal Gamon BHI Ikastetxea	Eskola Kiroleko Kudeaketa / Gestión Deporte Escolar	12.306,55€
Eskola Kirola - Koldo Mitxelena Ikastetxea	Eskola Kiroleko Kudeaketa / Gestión Deporte Escolar	20.146,98€
Eskola Kirola – Sagrado Corazón Telleri-Alde Ikastetxea	Eskola Kiroleko Kudeaketa / Gestión Deporte Escolar	13.825,26€
Eskola Kirola - Egiluze Hijas de la Cruz Ikastetxea	Eskola Kiroleko Kudeaketa / Gestión Deporte Escolar	10.997,65€
	<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>118.500,00€</b>

2.- Gastu hori 1.1530.481.04.341.30 2023 (A-948-2023) partidaren kargura xedatzea.

2.- Disponer dicho gasto con cargo a la partida 1.1530.481.04.341.30 2023 (A-948-2023).

3.- Hasieran elkarte bakoitzari emandako dirulaguntzaren %80a ordaintzea, aurrerakin gisa; betiere, aurkeztutako jarduera programa gauzatzen bada.

3.- Abonar inicialmente el 80% de la subvención concedida a cada entidad, con carácter de anticipo, y condicionado a la ejecución del programa de actividades presentado.

4.- Gainerako %20aren ordainketa, dokumentazio hau 2023ko abuztuaren 31a baino lehen aurkeztearen baldintzapean egongo da:

4.- El abono del 20% restante, queda condicionado a la presentación de la siguiente documentación, antes del 31 de agosto de 2023.

a) Dirulaguntza jasoko duen programa edo jardueraren memoria.

a) Memoria detallada del programa o actividad subvencionada.

b) Diru-sarrera eta gastuen balantze ekonomikoa.

b) Balance económico de ingresos y gastos.

c) Egindako gastuaren justifikanteak (fakturak) eta horien zerrenda.

c) Justificantes del gasto realizado (facturas) y relación de los mismos.

d) Dokumentazio grafikoa (kartelak, programak) edo ikus-entzunezkoa.

d) Documentación gráfica (carteles, programas) o audiovisual.

e) Elkartearen edo entitatearen diruzainak izenpetutako ziurtagiria, non jasotzen diren diruz

e) Certificado suscrito por el Tesorero de la Asociación o Entidad donde se haga constar una



## ERRETERIA UDALA

Kirolak / Deportes

lagundutako edo programatutako jarduerak finantzatzeko laguntza guztiak; bai entitate publikoek zein pribatuek egindakoak, zein publikoak orokorrean.

5.- Ordenantza arautzailean edo dirulaguntzaren emakidan adierazitako baldintzaren bat ez betetzeak, dirulaguntza berrikustea ekarriko du, eta, hala badagokio, emandako diru kopurua jaitea edo kopuru osoa itzuli beharra ere bai.

Gainera, aplikagarria den araudian agertzen diren kasuetarako, bidezkoa izango da jasotako diru kopuruak itzuli beharra, eta dirulaguntza ordaintzen den unetik itzuli egin behar dela erabakitzen den data arteko berandutza interesak eskatzea ere.

6.- Udal Aurrekontuaren kargura dirulaguntza jasotzeko, beharrezkoa da erakunde edo pertsona fisiko onuradunek, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantza eguneratua izatea, legeak horrela eskatuko balu.

7.- Ebazpen hau elkarte interesatuei jakinaraztea eta Udal ontuhartzaitzari berri ematea.

**Erabaki hau behin-betikoa da eta administrazio bideari amaiera ematen dio. Dena den, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakezu, edota egoki deritzozun beste edozein errekurtso.**

**NON:** dagokion Administrazioarekiko auzien epaitegia.

**EPEA:** bi hilabetekoa, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

**Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze**

relación de todos los ingresos obtenidos para la financiación de la actividad o programa subvencionado, tanto de entidades públicas como privadas, como del público en general.

5.- El incumplimiento de cualquiera de las obligaciones que se fijan en la ordenanza reguladora o en la concesión de la subvención, supondrá la revisión de la misma y, en su caso, la anulación, disminución o devolución de la cantidad otorgada.

Además, procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora correspondiente desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro, en los casos que figuran en la normativa aplicable.

6.- Para la percepción de las subvenciones con cargo al Presupuesto Municipal, será requisito por parte de la entidad o persona física beneficiaria, el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social si legalmente así les correspondiera.

7.- Notificar esta Resolución a las entidades interesadas y comunicarla a la Intervención Municipal.

**Contra el presente acuerdo, que es definitivo, y pone fin a la vía administrativa, podrá interponer recurso contencioso-administrativo o cualquier otro recurso que estime procedente.**

**LUGAR:** ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo correspondiente.

**PLAZO:** en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente de su notificación.

**No obstante, con carácter potestativo y previo al recurso contencioso-administrativo señalado anteriormente, contra la resolución expresa que**



**ERRETERIA  
UDALA**

Kirolak / Deportes

errekurtsua aurkez diezaiokezu ebazpena eman  
zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen  
hau jaso eta biharamunetik hasita.

se le notifica, podrá/n Vd/s. interponer recurso de  
reposición, ante el mismo órgano que la dictó, en  
el plazo de un mes que se contará desde el día  
siguiente al de la fecha de la recepción de la  
presente notificación.

Errenteria, sinaduran agertzen den datan

Errenteria, en la fecha de la firma

Idazkari Orokorra / La Secretaria General

Nagore Sarasola Otermin

**ESKOLA KIROLA – SAGRADO CORAZÓN TELLERI-ALDE IKASTETXEA**

**ESKOAL KIROLA – EGILUZE HIJAS DE LA CRUZ IKASTETXEA**

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUe8840704-e6c2-470b-8778-7c2213951d45**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2023SDBD0006-JAKINARAZPENA III/NOTIFICACIÓN III (SDBD)